Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

891

EBAZPENA, 2011ko urtarrilaren 27koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, abere biziak eta abeltzaintza-sektorearekin zerikusia duten produktuak garraiatzen dituzten ibilgailuen garbiketa- eta desinfekzio-zentroak instalatzeko eta egokitzeko laguntzei buruzko maiatzaren 8ko 77/2007 Dekretuaren babesean 2010eko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematekoa.

Maiatzaren 8ko 77/2007 Dekretuak abere biziak eta abeltzaintza-sektorearekin zerikusia duten produktuak garraiatzen dituzten ibilgailuen garbiketa- eta desinfekzio-zentroak instalatzeko eta egokitzeko laguntzak arautzen ditu.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko irailaren 3ko Aginduaren bidez, maiatzaren 8ko 77/2007 Dekretuan araututako laguntzen deialdia egin zen 2010. urterako.

Dekretu horretako hamaikagarren artikuluak ezarritakoa betez, eskatutako laguntzak esleitu dira Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren Ebazpenaren bidez.

Ebazpenak onuradunei jakinarazi ondoren, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluko 2. ataleko bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat (dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateratua onetsi zuen), honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Abere biziak eta abeltzaintza-sektorearekin zerikusia duten produktuak garraiatzen dituzten ibilgailuen garbiketa- eta desinfekzio-zentroak instalatzeko eta egokitzeko laguntzei buruzko maiatzaren 8ko 77/2007 Dekretuaren babesean 2010eko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

891

RESOLUCIÓN de 27 de enero de 2011, de la Directora de Agricultura y Ganadería, por la que se hace pública la relación de beneficiarios de las ayudas económicas concedidas durante el ejercicio 2010 en el marco del Decreto 77/2007, de 8 de mayo, de ayudas a la instalación y adecuación de los centros de limpieza y desinfección de vehículos dedicados al transporte por carretera de animales vivos y productos relacionados con el sector ganadero.

El Decreto 77/2007, de 8 de mayo, establece el régimen de ayudas a la instalación y adecuación de los centros de limpieza y desinfección de vehículos dedicados al transporte por carretera de animales vivos y productos relacionados con el sector ganadero.

Mediante Orden de 3 de septiembre de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, se convocaron, para el año 2010, las ayudas previstas en el mencionado Decreto 77/2007, de 8 de mayo.

Mediante Resolución de la Directora de Agricultura y Ganadería, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 11 del precitado Decreto, han sido adjudicadas las ayudas solicitadas.

Así, una vez notificadas las resoluciones a sus correspondientes adjudicatarios, y de conformidad con lo previsto en el apartado 2, párrafo segundo, del artículo 49 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de los Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco,

RESUELVO:

Primero.– Publicar la relación de beneficiarios de las ayudas económicas concedidas durante el ejercicio 2010 en el marco del Decreto 77/2007, de 8 de mayo, de ayudas a la instalación y adecuación de los centros de limpieza y desinfección de vehículos dedicados al transporte por carretera de animales vivos y productos relacionados con el sector ganadero.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jar diezaiokete Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 27a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.

Segundo.– Contra la presente Resolución los interesados podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 2011.

La Directora de Agricultura y Ganadería,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.

ERANSKINA/*ANEXO*

Abere biziak eta abeltzaintza-sektorearekin zerikusia duten produktuak garraiatzen dituzten ibilgailuen garbiketa eta desinfekzio-zentroak instalatzeko eta egokitzeko laguntzei buruzko maiatzaren 8ko 77/2007 Dekretuaren babesean 2010eko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda.

Relación de beneficiarios de las ayudas económicas concedidas durante el durante el ejercicio 2010 en el marco del Decreto 77/2007, de 8 de mayo, de ayudas a la instalación y adecuación de los centros de limpieza y desinfección de vehículos dedicados al transporte por carretera de animales vivos y productos relacionados con el sector ganadero.

Onuradunak *Beneficiarios*	Diru-laguntza (eurotan) *Subvención (en euros)*
Mungiako Udala / *Ayuntamiento de Mungia*	32.156,87